

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 99/2021 Foru Agindua, otsailaren 19koa. Aldatzea ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen 189 eredia, balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko informazio aitortenarena, bai eta eredu horren barruko orrien orde ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere

2020ko informazio aitorten aldaketak burutu beharrak premiazko egiten du aseguru eta errenten inguruko urteko informazio aitortenaren 189 eredia onetsi zuen ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua aldatzea, zergapekoari bere balore zorroari buruz laguntzeko sistema berriak behar bezala ibiltzeko behar den informaziora egokitzeko.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen 189 eredia, balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko informazio aitortenarena, bai eta eredu horren barruko orrien orde ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Ondoko aldaketa hauek egiten dira ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen 189 ereduko euskarriaren diseinu fisiko eta logikoetan, zeinak ekainaren 1eko 318/2009 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen baitira:

Bat. 2 motako erregistroko 96–107 posizioak, II. eranskinean jasotzen diren 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetakoak (aitortuaren erregistroa), “ZURIUNEAK” eremu gisa geratzen dira.

Bi. Aldatzen da “BALORE KOPURUA” eremua, 96-107 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
130-145	Numerikoa	<p>BALORE KOPURUA</p> <p>Honako hauen guztien kopurua jarri behar da: entitate juridikoen kapitaleko edo funts berekietako partaidetza edo akzioak, merkatu antolatuetan negoziatuak; kapital berekiak hirugarrenei lagatzearen adierazgarri diren baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak, edo inbertsio kolektiboko erakunde baten kapital sozialeko edo ondare funtseko partaidetza edo akzioak.</p> <p>BALORE GAKOA eremuan, 81 posizioan, A, B edo C jarri bada bakarrik beteko da eremu hau.</p> <p>Bi eremutan banatuta dago:</p> <p>130-139 Baloreen zati osoa.</p> <p>140-145 Baloreen zati hamartarra (ez badauka, zeroz beteko da).</p> <p>Halaber, aitortutako balore bat baino gehiago badaude, haietako bakoitzean, partaidetza ehuneko jakin bat daukan balore guztien kopurua jarri behar da.</p>

Hiru. “ZURIUNEAK” eremua, 130–389 posizioak hartzen dituen 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan) 146-389 posizioetara aldatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta aplikagarria izango zaie, lehen aldiz, 2020ko aitortpeni.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 19a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA